

OÑATIKO BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA BERGARAKO GAZTETXEAN UDALA

AGERTUTAKO PANKARTAREN AURREAN

Erregistro Data	
2012 IRA 25	
SATRESKA	IRTEERA
1942	

Bilduko udal taldeak Udal honetako Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko mozioa aurkezten du:

Bergarako Gaztetxe barruko horman uztailen zehar Lurdesen aurkako irainak eta mehatxuak zituen pankartaren aurrean lehenik eta behin mozio honen bitartez gure elkartasuna adierazi nahi diogu Lurdesi udaleko kide eta herritar gisa.

Bigarrenik argi eta garbi azaldu nahi dugu honokoa: Euskal Herrian garai politiko berri bat bizi dugula nabarmena dela eta honetarako herri honetako hainbat eragilek lan zintzoa egiten dihardutela, horien artean udalbatza hau osatzen dugun emakume gizonok.

Gernikako Akordioan jaso dagoen bezala, inoren aurkako mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertzea exijitzen dugu, edozein dela ere pertsona horien jardura edota ideologia politikoa.

Herri honetan zabaldu den garai politiko berria oztopatzea helburu duten ekintzak behin betikoz amaitu behar dira, Bergaran azaldutako pankarta bezalakoa kasu, eta honen aurrean Udalak interpelazioa luzatzen die eragile guztiei, eta gizarteari oro har, garai berria oztopatu eta honen aldeko konpromiso argia erakutsi duten ordezkari politikoak jasaten ari diren mehatxuen aurrean konpromiso aktiboak har ditzaten.


Hau, honela, jarraian aipatzen diren erabakiak hartzen ditu udal honek:

1-Udalak gisa honetako gertaerak sahiesteko, dagokion jardura instituzionalean urratsak emateko konpromisoa hartzen du.

2- Kargu politikoen aurkako mehatxuak behin betikoz alde batera utz daitezen eskatzen dugu.

3- Elkartasuna adierazten dio pankartan iraindua eta mehatxatua izan den Lurdesi, hala nola, Oñatiko EAJko kideei.

Oñatiko Bildu Udal Taldea

A handwritten signature in black ink, consisting of a vertical stroke with a small loop at the top and a horizontal stroke at the bottom.

;